

1. Informazioa eta datuen tratamendua

1.3. Informazio, datu eta eduki digitalen kudeaketa :

1.3.2. Aipamen eta erreferentzia bibliografikoak

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

Informazioa eta datuen
tratamendua.

Informazio, datu eta
eduki digitalen
kudeaketa

AIPAMEN ETA ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



Aipamenak zergatik eta noiz jarri behar diren jakitea.

Aipamen eta erreferentzien sistema ezagutzea.

AURKIBIDEA

- Sarrera
- Zergatik aipatu
- Noiz aipatu behar da
- Aipamen eta erreferentzia bibliografikoak
- Nola aipatu eta erreferentziak egin
- Gehiago jakiteko...

SARRERA



Edozein lan, txosten, memoria edo ikerketatan, beharrezkoa da dagoeneko argitaratuta dagoen informazioa erabiltzea (artikuluak, monografiak, arauak, estatistikak, webguneak, etab.).

Baina besteren informazioa ezin dugu besterik gabe kopiatu eta itsatsi gure lanean, gure uztako datu edo ideiekin nahasita. Nahitaezkoa da jakinaraztea zer informazio hartu dugun beste egile edo iturri batzuetatik, eta nondik hartu dugun.

Besteren informazioa haren jatorria aipatu gabe gure lanean kopiatzeak badu izen bat: **plagiatzea**. Alegia, gurea ez den zerbait gurea balitz bezala aurkeztea.

Beti aipatu behar ditugu erabiltzen ditugun informazio-iturriak, eta haien erreferentziak eman.
Literalki ez kopiatu arren, gurea ez den edozein ideia, parafraasi edo teoria erabiliz gero, nahitaez eman behar dugu haren egilearen berri.

ZERGATIK AIPATU

- Informazioa hartzen diegun egileen lana eta meritua aitortu eta haien egile-eskubideak errespetatu behar direlako.
- Beste egile batzuen **autoritateari esker gure testuak sendotu eta sinesgarritasuna** lortzen dugulako.
- Argi utzi behar dugulako erabiltzen ditugun datuak iturri fidagarri batetik datozela.
- Gaiari buruz **argitaratuta dagoena ezagutzen dugula** erakusteko modu bat delako.
- Irakurleak errazago aurkituko **duelako** informazio-iturria, eta aipatutakoa bere kabuz egiaztatu.
- Norberak sortutakoa gainerakotik bereizi behar delako.



Aipamenak plagioa saihesteko modu bat dira, hots, informazioa egoki eta etikoki erabiltzea.

NOIZ AIPATU BEHAR DA

Besteren informazio-iturri batetik ideia, teoria, datu edo azalpen bat hartzen dugun aldiro, haren aipamena egin behar da.

Paragrafo bat literalki ematean, parafraasi bat egitean edo gurea ez den ideia, teoria edo datu bat erabiltzean, informazioa zer iturritatik hartu dugun adierazi behar dugu beti.

Ez da aipamenik behar:

- Lan batean txertatzen dugun informazioa **geure ideia, ondorio edo esperientzietatik hartua** denean.
- Informazioa **ezagutza komunari** edo gure esparru zientifikoko domeinu publikoari dagokionean.



NOIZ AIPATU BEHAR DA



Ariketa txiki bat proposatzen dizugu.

Aztertu testu hauek eta hausnartu ea egokia den kasu bakoitzean aipamena jartzea edo ez jartzea.

Kristobal Kolon 1492an iritsi zen Amerikara lehenbizikoz (Fierro 2007).

Sodio kloruroa edo gatz arrunta NaCl formula duen konposatu kimikoa da. Naturan halita mineral gisa edo hainbat disoluziotan agertzen da, itsasoan kasu. Halaber, itsasoaren gazitasunaren eragile nagusia da eta hainbat organismoren jariakin estrazelularra da. Orokorrean jaki edo kontserbante bezala erabiltzen da (Wikipedia 2008).

Esperimentua egin eta gero, emaitzak egiaztatzeari ekin genion, eta aldeko datuak lortu genituen kasuen % 95en. Gainerako % 5a neurketa-erroreei edo datuak gaizki jaso izanari zor zaie.

Luzón eta Coín egileen arabera (1986), Mediterraneoko nabigatzaile zaharrek, gutxi gorabehera Kristo aurreko bigarren milurtekotik aurrera, itsas zabalean norabidea galtzen zutenean, hegaztiak askatzen zituzten, orientatzeko.

Egiaztatu zure ondorioak hurrengo orrialdeko oharrekin alderatuz!

NOIZ AIPATU BEHAR DA

Kristobal Kolon 1492an iritsi zen Amerikara lehenbizikoz (Fierro 2007).



Okerra. Datuak sobera ezagunak eta onartuak izanda, ez da beharrezkoa datuen iturria adieraztea.

Sodio kloruroa edo gatz arrunta NaCl formula duen konposatu kimikoa da. Naturan halita mineral gisa edo hainbat disoluziotan agertzen da, itsasoan kasu. Halaber, itsasoaren gazitasunaren eragile nagusia da eta hainbat organismoren jariakin estrazelularra da. Orokorrean jaki edo kontserbante bezala erabiltzen da (Wikipedia 2008).



Okerra. Hitzez hitz kopiatua izanda, jatorria agertu behar genuke, eta, aipua ere hitzez hitzekoa izanda, komatxo artean eman behar genuke.

Nolanahi ere, gaian aditua den pertsona edo autoritate baten hitzak aipatzean, adibidez, badu zentzua paragrafoak osorik kopiatzeak; baina, kasu honetan, ez dirudi zentzu handirik duenik: ondare komuneko hitzak dira, eta nahikoa litzateke gure hitzez adieraztea, aipamenik egin gabe.

Esperimentua egin eta gero, emaitzak egiaztatzeari ekin genion, eta aldeko datuak lortu genituen kasuen % 95en. Gainerako % 5a neurketa-erroreei edo datuak gaizki jaso izanari zor zaie.



Zuzena. Geuk egindako esperimentu bat izanda, logikoa da inongo iturririk ez izatea eta ez aipatzea.

Luzón eta Coín egileen arabera (1986), Mediterraneoko nabigatzaile zaharrek, gutxi gorabehera Kristo aurreko bigarren milurtekoetik aurrera, itsas zabalean norabidea galtzen zutenean, hegaztiak askatzen zituzten, orientatzeko.



Zuzena. Aipamena zuzena da, informazioa aipatzen diren egileen artikulu batetik hartua den heinean. Geure hitzez adierazita dagoenez, ez da beharrezkoa komatxo artean ematea.

AIPAMEN ETA ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK



Paragrafo bat hitzez hitz kopiatu edo parafrasi bat egiten dugunean, edo gurea ez den ideia, teoria edo daturen bat erabiltzen dugunean, beharrezkoa da informazioaren iturria zein den aipatzea.

Horretarako, **aipamen bat** txertatzen da testuan, eta, gero, haren **erreferentzia**, lanaren amaierako **bibliografia** atalean.

AIPAMEN ETA ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Aipamena: lanaren testuan txertatzen den oharra. Testua, datua, ideia, teoria edo dena delakoa zer iturritatik hartu den identifikatzeko balio du.

Erreferentzia bibliografikoa: aipaturiko dokumentua argi eta garbi identifikatzeko funtsezko datuak dira. Zerrenda moduan, lanaren amaieran txertatzen dira.

Bibliografia: lanaren amaieran agertu ohi den erreferentzia-zerrenda. Gutxienez testuan txertaturiko aipamenak bildu behar ditu.

APA estiloko aipamen eta erreferentzien adibideak

Aipamenek bibliografiako erreferentzietan agertu behar dute, osatuta.

Evaluating students' evaluations of professors^{2*}

Michela Braga^a, Marco Paccagnella^b, Michele Pellizzari^{c,*}

^aBocconi University, Department of Economics, Italy

^bBank of Italy, Trento Branch, Italy

^cUniversity of Geneva, Institute of Economics and Econometrics, Switzerland

ARTICLE INFO

Article history:

Received 2 August 2013
Received in revised form 22 April 2014
Accepted 23 April 2014
Available online 5 May 2014

JEL classification:

I20
M55

Keywords:

Teacher quality
Postsecondary education
Students' evaluations

ABSTRACT

This paper contrasts measures of teacher effectiveness with the students' evaluations for the same teachers using administrative data from Bocconi University. The effectiveness measures are estimated by comparing the performance in follow-on coursework of students who are randomly assigned to teachers. We find that teacher quality matters substantially and that our measure of effectiveness is negatively correlated with the students' evaluations of professors. A simple theory rationalizes this result under the assumption that students evaluate professors based on their realized utility, an assumption that is supported by additional evidence that the evaluations respond to meteorological conditions.

© 2014 Elsevier Ltd. All rights reserved.

1. Introduction

The use of anonymous students' evaluations of professors to measure teachers' performance has become extremely popular in many universities (Becker & Watts, 1999). They normally include questions about the clarity of lectures, the logistics of the course, and many others. They are either administered during a teaching session toward the end of the term or, more recently, filled on-line.

The university administration uses such evaluations to solve the agency problems related to the selection and motivation of teachers, in a context in which neither the types of teachers, nor their effort can be observed precisely. In fact, students' evaluations are often used to inform hiring and promotion decisions (Becker & Watts, 1999) and, in institutions that put a strong emphasis on research, to avoid strategic behavior in the allocation of time or effort between teaching and research activities (Brown & Saks, 1987; De Philippis, 2013).¹

* We would like to thank Bocconi University for granting access to its administrative archives for this project. In particular, the following persons provided invaluable and generous help: Giacomo Carrai, Mariela Chirilli, Mariapia Chisari, Alessandro Ciario, Alessandra Gadioli, Roberto Grassi, Enrica Greggo, Gabriella Maggioni, Erika Palazzo, Giovanni Pavese, Cheredino Profeta, Alessandra Startari and Mariangela Vago. We are also indebted to Tito Boeri, Giovanni Bruno, Giacomo de Giorgi, Marco Leonardi, Vincenzo Mariani, Tommaso Monacelli, Tommy Murphy and Tommaso Nannicini for their precious comments. We would also like to thank seminar participants at the Bank of Italy, Bocconi University, International Workshop on Applied Economics of Education, London School of Economics, UC Berkeley, Università Statale di Milano and LIUSS University. Davide Malacino and Alessandro Ferrari provided excellent research assistance. Michele Pellizzari is also affiliated to EA, CREAM, IFOB and NCCR-LIVES. The views expressed in this paper are solely those of the authors and do not involve those of the Bank of Italy.

References

- Agresti, J. D., & Lavy, V. (1999). Using Maimonides' rule to estimate the effect of class size on scholastic achievement. *The Quarterly Journal of Economics*, 114, 533–575.
- Baker, G., Gibbons, R., & Murphy, K. J. (1994). Subjective performance measures in optimal incentive contracts. *The Quarterly Journal of Economics*, 109, 1125–1156.
- Bandiera, O., Larcinese, V., & Rasul, J. (2010). Heterogeneous class size effects: New evidence from a panel of university students. *Economic Journal*, 120, 1305–1328.
- Barrington-Leigh, C. (2008). *Worker as a transient influence on survey-reported satisfaction with effort*. Draft research paper, University of British Columbia.
- Becker, W. E., & Watts, M. (1989). How departments of economics should evaluate teaching. *American Economic Review (Papers and Proceedings)*, 79, 244–249.
- Beleche, T., Farris, D., & Marks, M. (2012). Do course evaluations truly reflect student learning? Evidence from an objectively graded course. *Economics of Education Review*, 31, 709–719.
- Brown, B. W., & Saks, D. H. (1987). The microeconomics of the allocation of teachers' time and student learning. *Economics of Education Review*, 6, 319–332.
- Carrell, S. E., & West, J. E. (2010). Does professor quality matter? Evidence from random assignment of students to professors. *Journal of Political Economy*, 118, 409–432.
- Hoxby, C. M. (2000). Faculty research activity and the quality of graduate training. *Journal of Human Resources*, 16, 400–415.
- Holmstrom, B., & Milgrom, B. (1991). The firm as an incentive system. *American Economic Review*, 81, 973–981.
- Jacob, B. A., & Lefgren, L. (2008). Do principals identify effective teachers? Evidence on subjective performance evaluation in education. *Journal of Labor Economics*, 26, 101–136.
- Johnson, V. E. (2003). *Grade inflation: A college education*. New York, NY: Springer-Verlag.
- Kane, T. J., & Staiger, R. W. (2008). Do teaching teacher impacts on student achievement? An experimental evaluation. Technical Report 14607, NBER Working Paper Series.
- Keller, M. C., Pedrickson, E. L., Ybarra, O., Coates, S., Johnson, M., Mikels, L., et al. (2009). A warm breast and a clear head: The contingent effects of weather on mood and cognition. *Psychological Science*, 16, 728–734.
- Koyama, A. C., & Sanders, W. (1999). Grades and students' evaluations of teachers. *Economics of Education Review*, 18, 59–63.
- Krueger, A. F. (1989). Experimental estimates of education production functions. *The Quarterly Journal of Economics*, 104, 497–532.
- Lavy, V. (2009). Performance pay and teachers' effort, productivity and grading ethics. *American Economic Review*, 99, 1979–2011.
- Mullis, I. V., Martin, M. O., Foy, P., & Foy, P. (2009). *IMSS Advanced 2008 International Report*. Chestnut Hills, MA: TIMSS & PIRLS International Study Center, Lynch School of Education, Boston College.
- OECD. (2008). *Education at a glance*. Paris: OECD Publishing.
- OECD. (2010). *PEA 2009 at a glance*. Paris: OECD Publishing.

Bibliografia

Citas

Erreferentzia Bibliografikoa

NOLA AIPATU ETA ERREFERENTZIAK EGIN

Estilo ugari dago aipamen eta erreferentziak emateko. Estilo bat aukeratzea gaiaren arabera erabakia izan daiteke, gure fakultateak, irakasleak edo beste norbaitek eskaturikoaren arabera, edo gure gustuen arabera.

Egia esan, koherentea izatea garrantzitsuagoa izan daiteke aipamen eta erreferentzietarako estilo jakin bat aukeratzea baino. Lan bateko aipamen eta erreferentzia guztiak estilo berari jarraituz idatzi behar dira.

Zalantzarik baduzu estiloa aukeratzeko, zure irakasle edo tutoreak lagunduko dizu. Beste aukera bat da zure unibertsitateko fakultatearen edo eskolaren araudia kontsultatzea, baldin eta halakorik badago.

Aipamenak eta erreferentziak egoki emateko, kontuan hartu pauso hauek:

1

Aukeratu aipamenerako estilo egoki bat.

2

Aitortu aipatu nahi duzun argitalpena identifikatzeko elementuak.

3

Erabili elementu horiek aipamen eta erreferentziak egoki emateko.

GEHIAGO JAKITEKO...

Kontsultatu [Nola idatzi aipamenak, erreferentzia bibliografikoak eta bibliografia](#) Mondragon Unibertsitateko Bibliotekaren gida.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



Basque Culinary Center

Biblioteka

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

Enpresa Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteka

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu